

GIL 35 Meñakozeko kuxin-labak



Labarreko kuxin-laben azaleratze nagusiaren ikuspegia.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 23' 42,14 '' N

Long.: 2° 59' 23,43'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 500.822,64 m

Y: 4.804.684,65 m



Nola iritsi

BI-2122 errepidetik, Sopelana eta Barrika herrien artean, Meñakozeko kalara doan bidea hartu behar da. Bidean behera joan, eta ibili harkosko-hondartzan hego-mendebalderantz, lurmuturreraino.



1,5 m-ko diametroko megakuxina, hozte-diaklasa erradial eta zentrokideak ageri dituena.

GILaren deskribapen laburra

Meñakozeke hondartzako mendebaldeko muturrean dauden labak Eusko-Kantauriar arroko Goi Kretazeoko bolkanismoaren koladarik adierazgarrienetako bat dira. Labarrean ageri den kuxin-laben (pillow laben) kolada ikusgarria dela-eta nabarmentzen da azaleratze hori. Koladak luzapen bat du marearteko zonarantz; bertan azaleratzen diren fazies bolkanikoak ere interesgarriak dira, eta haietako batzuk, bikainak.

Labarreko kuxin-labak alderantzizko posizioan dagoen sekuentzia bolkano-sedimentario batean txertatuak azaleratzen dira. Kuxin-hodi basalek (1,5 m-rainoko diametrokoak) oin laua dute. Gainean, hodi basalen artean geratzen den tartean, kuxin-koladaren gainerakoa eratzen duten hodiak daude (2 m-rainoko diametrokoak). Kolada, guztira, 20 m lodi da, gutxi gorabehera. Labarraren oinean eta aldameneko marearteko zonan, koladatik askatutako zenbait bloke handi azaleratzen dira. Bloke horietan, kuxin-hodien bereizgarri diren zeharkako eta, neurri txikiagoan, luzetarako ezaugarriak modu ikusgarrian ageri dira. Ikusgai dauden egitura nagusiak hauek dira: 1) hozte-diaklasa erradialak, 2) hozte-diaklasa zentrokideak, 3) besikula/amigdala esferikoak / *pipe* motako besikula/amigdalak, 5) drainatze-barrunbeak, 6) luzetarako hedatze-zartadurak eta 7) zeharkako hedatze-zartadurak.

Azaleramenduaren itsas zabaleranzko luzakinean, berriro *in situ* azaleratzen da kuxin-kolada. Koladaren sektore horretan, labazko hodi handiak nabari dira (megakuxinak: 3-4 metroraingo diametroa). Megakuxinen higadurari esker, aurreko paragrafoan aipatutako kuxin-laben egitura bereizgarriak ikusteaz gainera, zutabe-disjuntzio erradial ikusgarriak dituzten zeharkako eta luzetarako sekzioak ere ikus daitezke. Zona horretan, halaber, bertatik bertara ikus daiteke kuxin-hodien metatzeko modu bihurria: aldi berean, megakuxinak eta oso hodi txikiak (20-50 cm) eratzen dira. Behealdeko hodiekin oinarri



Megakuxin erorien sekzioetan agertzen diren besikula esferikoen xehetasuna.

laua dute, puntu batzuetan izan ezik; puntu horietan, substratua eratzen duten sedimentu heze kontsolidatugabeetan sartzen da laba, eta peperita ikusgarriak eratzen dira.

Itsasorantz sartuta, laba-bloke handiak daude (2-4 m³), zutabe-disjuntzio bikaina dutenak. Arroka-prismek, 3 m-rainoko luzerakoak, oinarri pentagonala edo hexagonala dute (10-20 cm-ko aldea dute), eta, gainera, disjuntzio laminar bat dute. Bloke horiek laba tabularren kolada baten higaduraren ondorioa dira. Bloke horietako batzuk bretxa monomiktiko soldatuak dira, zutabe-laben (zutabe-bretxa soldatuak) zati heterometrikoz elikatutak (heterometrikoa: zentimetroaren ordenatik metroaren ordenara bitartekoa).

Meñakozeko koladak erakusten dituen itsaspeko laben ezaugarri orokorren erakusgarri bikainaz gainera (kuxin-labak, megakuxinak, laba tabularrak, peperitak), fazies bolkanikoen elkartea ohiz kanpoko da, zutabe-disjuntzioa duen laba tabularreko kolada bat megakuxinen bidez kuxin-laben egitura bilakatuta erakusten baitu. Kuxin-laben eratze-prozesuak berekin dakar kolada tubular baten barnealdea bere azken tartean drainatzea, neurrizko emariekin, eta, beharbada, baita laba-tunel bat eratzea ere. Zutabe-labaz eratutako laba-tunelaren sabaitik arrokkak erortzean, zutabe-bretxa soldatuak eratzen dira; mundu osoko erregistro geologikoan, oso gutxitan agertzen dira era horretako arrokkak.

Begien bistako interes petrologikoaz gainera, Meñakozek badu nolabaiteko interes geomorfologikoa ere, kala zenbait tamainatako harkoskoz eratuta dagoelako eta Kulumendi lurmuturra duelako (kuxin-kolada). Aipatu beharrekoa da, halaber, kuxinetatik oso gertu ammoniteak daudela.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 24, GIL26, GIL44, GIL49, GIL 90, GIL 91, GIL 93, GIL 96, GIL 117, GIL 118, GIL 125, GIL 127, GIL 132.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 34, GIL 36, GIL 37, GIL 38, GIL 39, GIL 40, GIL 41, GIL 42.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa	●			
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala	●			
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa		●		
	Petrologikoa				●
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Ortega, A: *El magmatismo en la terminación occidental del flanco NE del Sinclinorio de Vizcaya. Lizentzia-tesia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 115. or.
- Carracedo, M., Larrea, F.J., Sarrionandia, F. eta Jiménez, R. (2000): *“Estructura y organización de las coladas volcánicas submarinas: relación entre las coladas tabulares y las lavas almohadilladas cretácicas en la Cordillera Vasco-Cantábrica”*. Revista de la Sociedad Geológica de España, 13 (1): 45-53.
- Carracedo Sánchez, M., Sarrionandia, F., Juteau, Th. eta Gil Iburguchi, J.I (2012): *“Structure and organization of submarine basaltic flows: sheet flow transformation into pillow lavas in shallow submarine environments”*. International Journal of Earth Sciences, 101:2201–2214.